

## UNIBERTSITATEKO MKROKREDENTZIALAK (EHU)

### PRESTAKUNTZA PROPOSAMEN BAT AURKEZTEKO GIDA

UPV/EHUko Uda Ikastaroen Fundazioaren laguntzarekin, plataforma bat sortu da UPV/EHUko mikrokredentzial-proposamen bat izapidetzeko eta aurkeztu ahal izateko.

Dokumentu honetan, sisteman alta emateko moduari buruzko informazioa jasotzen da, bai eta mikrokredentzialaren aurkezpena kudeatzeko moduari buruzkoa ere.

## 1. PLATAFORMARA SARTU

Lehenik eta behin, erregistratu plataforman: <https://mikrokredentzialak.ehu.eus> + “SARTU”

- Sartzen zaren lehen aldia bada, plataforma honetan erregistratu behar duzu:

“Erregistratu” atalean: Izena, abizenak. NANA, helbide elektronikoa bat eta pasahitza (ez da LDAPa)

- Dagoeneko plataforman erregistratuta bazaude:

“Sartu” atalean idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza. Bi aldiz eskatuko dizu.

- Hurrengo menua duen pantaila batera helduko zara:

Hasiera Gune pertsonala ▾ Proposamenak ▾ Jarduerak ▾ Matrikulak Ikaslea naiz ▾ Zuzendaria naiz ▾ Buscador de cursos Irakaslea naiz ▾ Nire ziurtagiriak ▾

- **Gune pertsonala:** datu pertsonalak eta curriculum vitae (1.250 karaktere gehienez).

- **Proposamenak:** “Proposamenak bidali” eta klikatu:

Jarduera berri bat sortu +


- Plataformatik ere sar zaitezke:

## 2. AURKEZTU ZURE MIKROKREDENTZIAL PROPOSAMENA

### INFORMAZIOA GRABATU:

- Plataformak aukera ematen dizu sartutako informazioa gordetzeko: **“Zirriborroa bezala gorde”**. Horrela, plataformara berriz sartzen zarenean (**“Sartu”** edo **“Proposamenak”** aukerak erabiliz), **“Nire proposamenak”** atalean informazioa editatu eta osatu ahal izango duzu.
- Grabazio prozesua amaitu eta jarduera onartu ondoren, informazioa **“Onartutako jarduera”** atalera eramango da, eta bertan editatu ahal izango duzu berriro, Unibertsitateko Mikrokredentzialen webgunean argitaratu baino lehen.

“Datu nagusiak” atalean proposamen mota aukeratu: **“UPV/EHU – mikrokredentzialak”**.



Proposamenaren barruan, lortxo gorria duten eremu guztiak nahitaezkoak dira. \*

### a) MIKROKREDENTZIALAREN DATU NAGUSIAK

- **Mikrokredentzialaren izenburua**
- **Irakaskuntza-metodologia: Aurrez aurrekoa, birtuala edo hibridoa.**
- **Diru laguntzaile erakundeak: “+”** ikurra sakatu eta UPV/EHU gehitu (nahitaezkoa)
- **Mikrokredentzialaren Zuzendaritza Akademikoa**, zuzendarikide bat gehi daiteke.
- **Mikrokredentziala nori dagoen zuzenduta**
- **Partaide kopurua lortzeko aurreikusitako ekintzak edo estrategiak.**
- **Jarduera kokatzen den ezagutza arloa/k.**
- **Zein Garapen Iraunkorreko Helburuari (GIH) laguntzen dio proposamen honek?** (aukerakoa, baina gomendagarria)
- **Erabiliko den metodologiaren azalpena.**
- **Mikrokredentziala emango den hizkuntza/k ofiziala/k.**
- **Datak:** Mikrokredentziala zein datetan emango den (egun kopurua ere eskatzen da, baina, egiazta dezakezuenez, gehienez 5 egun aukeratzen uzten du. Eremu hau ez da garrantzitsua)
- **Jardueraren lekua:** Presentziala bada, adierazi non egingo den.

- **DOKUMENTAZIOA.** NAHITAEZKOA da honako dokumentazio hau eranstea:
  - **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA.** Mikro kredentzialaren aurrekontu-aurreikuspena jasotzen duen Excel dokumentua beteta igo behar da: "[Aurreikuspen ekonomikoa eredu. EHU](#)"
  - **INTERES ADIERAZPENA.** Mikro kredentzial honekiko interesa adierazten duen edo eskaria egiten duen enpresa, erakunde edo administrazioa jasotzen duen eredu bat beteta igo behar da. "[Interes adierazpen eredu. EHU](#)".

**Datuak bete eta dokumentuak igo ondoren, informazioa "GORDE" behar duzu.**

Zirriborroa bezala gorde

Gorde eta jarraitu

## b) MIKROKREDENTZIALAREN LABURPENA ETA HELBURUAK

Atal honetan, "Testu-eremuak" aurkituko dituzu, honako informazioa sartzeko::

- **Jardueraren laburpena**
- **Ikastaroaren helburuak.** Adierazi gehienez 5. Klikatu "+" ean helburu berriak gehitzeko. (Hainbat hizkuntzatan grabatu daitezke)

**Ikastaroaren helburuak \***

Jardueraren helburuak bete, testu kutxa bat erabili bakoitzeko. Klikatu "+" ean helburu berriak adierazteko.

+

**Datu hauek bete ondoren, datuak "GORDE" behar dituzu.**

## c) IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

- **Jarduera mota EHU:** Mikro kredentzialak.
- **ECTS kredituak:** prestakuntzaren ECTS kreditu kopurua adierazi.
- **Zenbat pertsona** matrikulatzea espero den.
- **Integrazio aukerak:** adierazi jarduera independentea, integratua edo pilagarria den. Momentu honetan jarduera guztiak **independenteak** dira.
- Eskatuko diren **ebaluazio probak** adierazi (hautatu proposatutako aukeren artean).
- **Jakintza esparrua.** Hautatu "Jakintza esparrua" zerrendatik ([Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre](#), ANEXO I).
- **Gaikako esparruak.** (CINE-F ANEXO I) dokumentua erabiltzea gomendatzen da.
- **Prestakuntza erakunde, enpresa edo entitate zein langileri zuzenduta dagoen.**
- **Sektoreko prestakuntza-beharrak**
- **Ikaskuntzaren emaitzak eta lorpen mota.** Ezarri gehienez 5 (Ikusi IKASKUNTZAREN EMAITZEN FORMULAZIOA ERANSKINA)
- **Sarbide-baldintzak eta onarpen-irizpideak.**
- **Proposamen honen ikaskuntza-esperientziaren maila EQF kualifikazioetan oinarrituta, European Qualifications Framework kualifikazio-esparruaren arabera (MEC-aren baliokidea).** Proposamen honetan **kualifikazio maila** bakarra hautatu behar da, EQF kualifikazio-esparruaren arabera, [European Qualifications Framework](#).

- **ESCO, European Skills, Competences, Qualifications and Occupations gaitasun-esparru batzuk:** Hautatu gutxienez konpetentzi **1, eta gehienez 5** konpetentzia/kualifikazio esteka honetan [https://esco.ec.europa.eu/es/classification/skill\\_main](https://esco.ec.europa.eu/es/classification/skill_main). **Garrantzitsua:** Konpetentzia/kualifikazio bakoitzaren deskribapena eta URLa *kopiatu* eta dagokien laukitxoetan *itsatsi*.

#### d) FORMAKUNTZA EGITARAUA

Mikrokredentzialerako aurreikusitako programa pdf formatuan igo. Behin jarduera onartuta, behin betiko programa berri bat igo ahal izango duzu, webgunean erakutsiko dena.

#### BIDALI ZURE PROPOSAMENA

Datu guztiak ongi osatu ondoren, atal honetan proposamena “bidaltzeko” botoia aurkituko duzu.

Bidali

#### e) AUKERAKO ZERBITZUAK. EZ duzue bete behar.

(\*)Plataformari lotutako gai guztiak, sarbidea, web orrialdeko informazioa, erregistroak, matrikulak, e.a. Amaiak (UIK-ko lankideak) kudeatuko ditu: 943299746/613797922 [amaia.bengoetxea@uik.eus](mailto:amaia.bengoetxea@uik.eus)

### 3. MIKROKREDENTZIALAREN JARRAIPENA ETA BALORAZIOA

**Unibertsitateko Mikrokredentziala grabatu eta bidali ondoren, honako urrats hauek jarraituko dira:**

- **Mikrokredentzialen Azpibatzerdeak** deialdiaren baldintzak betetzen diren baloratzen du, eta hobekuntza gomendioak proposatzen ditu. Era berean, mikrokredentzialen lantaldeak mikrokredentzialaren berrikuspen ekonomikoa egiten du.
- Zuzendaritza akademikoak beharrezko aldaketak egiten ditu.
- **Mikrokredentzialen lantaldeak fakultateari mikrokredentzialaren bermea eskatzen dio.** Zuzendaritza akademikoa atxikita dagoen fakultateak mikrokredentzialari oniritzia ematen dio, bere prestakuntza-eskaintzan txertatuz.
- **Graduondoko Batzordeak** mikrokredentziala onartzen du.
- **Aurreikusitako datetan mikrokredentziala eskaintzen da.**
- Gure langileek **matrikulatzen dituzte ikasleak**, plataforman eta EHUonen.
- **EHUon gela birtualaren** prestatu (informazioa beste gela birtual batzuetatik ekar daiteke)
- **Irakaskuntza ematea eta ikasleen ebaluazioa.**
- Mikrokredentzialaren ebaluazioa (Ikasleen eta irakasleen asebetetze inkestak)
- **Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren** adierazleak:
  - Matrikulatutako ikasle kopurua; lanean dagoen ikasle kopurua; ikasle atzerritarren kopurua; beste unibertsitatetik datozen ikasle kopurua; barne/kanpoko irakasleen tasa; doktorea den irakasleen %a; emaitza ekonomikoa; arrakasta-tasa; irakasleen asebetetze-maila, ikasleen asebetetze-maila.
- **Ikaslegoaren ziurtagiriak** (Europass) eta **Zuzendaritza Akademikoarenak.**

(\*) Prozesu osoan Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzaren Unibertsitateko Mikrokredentzial lantaldearen laguntza izango duzue. Yolanda, Nuria eta Lander:

946012727 / 946013174 / 945014305 / [mikrokredentzialak@ehu.eus](mailto:mikrokredentzialak@ehu.eus)

## ERANSKINA: IKASKUNTZAREN EMAITZEN FORMULAZIOA

**Ikaskuntzaren emaitzak** errazago **formulatzeko**, [ANECaren ikaskuntzaren emaitzak praktikan jartzeko eta ebaluatzeko laguntza-gida](#) (2013) irakurtzea gomendatzen da, bereziki 3. kapitulua ("**Nola formulatzen, ebaluatzen eta berrikusten dira ikaskuntzaren emaitzak?**") (25-32. or.). Bertan, gaia sakon azaltzen da eta formulazio-adibideak ematen dira, honela definituta: "ikasleek ikaskuntza-prozesu baten amaieran ezagutzea, ulertzea eta/edo egiteko gai izatea espero denaren adierazpenak".

### IKASKUNTZAREN EMAITZAK FORMULATZEKO ONDORENGOA GOMENDATZEN DA:

- **Gehienez ere bost** ikaskuntza-emaitza formulatzea.
- Formulatu aurretik, pentsatu honako gako honetan: "**Ikasleek gai izan behar dute...**"
- Ikaskuntzaren emaitza bakoitza formulatzeko **aditz bakarra** erabiltzea. Jarraian, adibide batzuk azalduko ditugu.

Ikaskuntzaren emaitza formulatzeko ANECaren dokumentu horretan, Bloomen taxonomia erabiltzea gomendatzen da, aditz egokienak aukeratzeko. Sailkapen horretan adierazten denez, ikaskuntzak hiru plano bereizten ditu: kognitiboa, subjektiboa eta psikomotorra. Gainera, formulatzeko erabilgarriak diren aditzen zerrenda bat ematen du.

- a. **Plano kognitiboa** pentsamendu-prozesuarekin lotutakoa da, eta Bloomek gehien garatu zuena izan zen. Ikasle batek egiten duen ikaskuntza sei kategorien arabera aldatzen dela adierazten da: ezagutza, ulermena, aplikazioa, analisisa, sintesia eta ebaluazioa.

TABLA 2: Verbos correspondientes a las distintas categorías del plano cognitivo de la clasificación de Bloom

|                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|-----------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. CONOCIMIENTO | citar, decir, definir, describir, duplicar, encontrar, enumerar, enunciar, examinar, identificar, listar, marcar, memorizar, mostrar, nombrar, ordenar, organizar, presentar, recopilar, recordar, relatar, repetir, reproducir, resumir, tabular.                                                                                                                                            |
| 2. COMPRENSIÓN  | asociar, cambiar, clarificar, clasificar, construir, contrastar, convertir, deducir, defender, descodificar, describir, diferenciar, discriminar, discutir, distinguir, estimar, explicar, expresar, extender, generalizar, identificar, ilustrar, indicar, informar, interpretar, modificar, parafrasear, predecir, reconocer, reescribir, resolver, revisar, seleccionar, situar, traducir. |
| 3. APLICACIÓN   | adaptar, aplicar, bosquejar, calcular, cambiar, completar, computar, construir, demostrar, desarrollar, descubrir, elegir, emplear, encontrar, examinar, experimentar, ilustrar, interpretar, manipular, modificar, mostrar, operar, organizar, practicar, predecir, preparar, producir, programar, relatar, seleccionar, solucionar, transferir, utilizar, valorar.                          |
| 4. ANÁLISIS     | analizar, calcular, categorizar, clasificar, comparar, conectar, contrastar, criticar, cuestionar, debatir, deducir, desglosar, determinar, diferenciar, discriminar, distinguir, dividir, subdividir, examinar, experimentar, identificar, ilustrar, inferir, inspeccionar, investigar, mostrar, ordenar, organizar, relatar, resumir, separar, testar, valorar.                             |
| 5. SÍNTESIS     | argumentar, categorizar, combinar, compilar, componer, construir, crear, desarrollar, diseñar, establecer, explicar, formular, generalizar, generar, hacer, instalar, integrar, inventar, manejar, modificar, organizar, originar, planificar, preparar, proponer, reconstruir, recopilar, reescribir, relatar, reordenar, reorganizar, reunir, revisar, sintetizar, trazar.                  |
| 6. EVALUACIÓN   | adjuntar, apoyar, apreciar, argumentar, comparar, concluir, contrastar, convencer, corregir, criticar, decidir, defender, determinar, discriminar, elegir, estimar, estipular, evaluar, explicar, interpretar, justificar, juzgar, medir, predecir, puntuar, recomendar, relatar, resolver, resumir, revisar, validar, valorar.                                                               |

Iturria: ANECA (2013)

- b. **Plano subjektiboa** ikaskuntzaren osagai emozionalari dagokio, jarrerai, balioei eta etikari.

TABLA 3: Verbos para evaluar el plano subjetivo

|                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>PLANO SUBJETIVO</b> | Aceptar, acoger, actuar, adherirse, apoyar, apreciar, asistir, combinar, compartir, completar, comunicar, concordar con, coopear, cuestionar, defender, demostrar (una creencia en algo), diferenciar, discutir, disputar, elogiar, escuchar, exponer, iniciar, integrar, intentar, justificar, juzgar, ordenar, organizar, participar, practicar, preguntar, relatar, resolver, responder, retar, seguir, sintetizar, tener, unir, valorar. |
|------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Iturria: ANECA (2013)

- c. **Plano psikomotorra**, trebetasun fisikoak eta koordinazioarekin lotutakoak biltzen dituen, garrantzitsuak prestakuntza-jarduera mota jakin batzuetan.

TABLA 4: Verbos para evaluar el plano psicomotor

|                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|-------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>PLANO PSICOMOTOR</b> | Adaptar, administrar, agarrar, ajustar, aliviar, alterar, arreglar, bosquejar, calentar, calibrar, colocar, combinar, construir, copiar, coreografiar, cuadrar, demostrar, dismantelar, detectar, diferenciar (al tacto), diseccionar, diseñar, distribuir, doblar, edificar, ejecutar, estimar, examinar, fijar, gesticular, grabar, identificar, imitar, manejar, manipular, medir, mezclar, operar, organizar, presentar, reaccionar, refinar, reparar, representar, reunir, triturar, utilizar. |
|-------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Iturria: ANECA (2013)

**ANECAREN dokumentutik ateratako ikaskuntzaren emaitzen adibide batzuk:**

- *Sektore publikoak duen antolamendua eta funtzionamendua deskribatzea.*
- *Baso-inguruneko energia berriztagarriak zerrendatzea.*
- *Ikerketa zientifikoetan aldagaiak identifikatzea (independenteak eta mendekoak).*
- *Kritikoki eta justifikatuta balioestea.*
- *Kontzeptu bat modu arrazoituan lantzea.*
- *Lehen, bigarren eta hirugarren mailako sozializazioa alderatzea, berezitasunak identifikatuz.*
- *Denbora- eta luzera-magnitudeak bereiztea.*
- *Prozesu fisiopatologikoak, horien agerpenak eta arrisku-faktoreak azaltzea.*
- *Ezagutza biokimikoak begian eta ikusmen-prozesuan aplikatzea.*
- *Problemak ebazteko metodo egokiak erabiltzen direla frogatzea.*
- *Konstituzio Auzitegiaren epaietatik informazio garrantzitsua ateratzea.*
- *Azaleko eta lurpeko obrak diseinatzea eta planifikatzea.*
- *Aro Modernoko historia ekonomikorako garrantzitsuak diren iturri historikoak interpretatzea.*
- *Lurrari buruz eskuragarri dagoen informazioa interpretatzea.*
- *Medikuen lanbidearen funtsezko elementuak praktikan jartzea, printzipioak barne ...*
- *Zuzendaritza-estiloak hautatu eta hartu.*
- *Praktika profesionalean sor daitezkeen gatazka-egoerak konpontzea.*
- *Lanbidearen berezko balio etikoak erakustea, azaltzea eta justifikatzea.*
- *Bendaje jakin bat jartzea, ikasitako teknika menderatzen duela erakutsiz.*
- *Elementuak laborategiko jardunbide egokiei jarraituz manipulatzeko.*
- *Arte-jarduera profesionalerako trebetasun teknikoak menderatzen dela erakustea.*
- *Urbanizazio-, lorezaintza- eta paisaia-proiektuak gauzatzea.*
- *Etab.*